

UDALETAKO
KULTUR
ZERBITZUEN EREDU
FUNTZIONALERANTZ

Txosten exekutiboa



Nola egokitu udaletako kultur zerbitzuak egungo errealitatera?

Tokiko kulturaren zerbitzu publikoa baliabide guztiak barne hartzen dituen sistema bat da, hau da, giza baliabideak zein ekonomikoak, materialak eta immaterialak, eta behin horiek oro Udalek edo toki entitateek antolaturik eta administraturik, arte eta kultur zerbitzuak ematera bideratzen dira herritarrek erabili, gozatu eta partekatu ditzaten.

Sistema gisa, baliabide batzuk jaso eta kontsumitzen dituzte emaitza batzuk eskaintzeko: erregulazio eta sinergia bitartekoak dituzte egokitu eta aldatu ahal izateko. Sistema konplexua da eta, hartan, beste zerbitzu publiko batzuei dagozkien hainbat azpisistema daude, eta sistema, aldi berean, are sistema konplexuagoetan dago sarturik, hots, Tokiko Administrazio Publikoaren sisteman.

Toki mailako kultur zerbitzu publikoak kultur forma ezberdinak eskuratzeko sarbide nagusietako bat dira herritarrentzat. Haien hazkundera, ordea, halako konplexutasun eta berezitasuna ekarri dut, Administrazioak moldatu beharrekoa. Horren haritik, kultur arloko udal zerbitzuek hobeki funtzionatzea dute xede.

Tokiko udal kultur zerbitzuetarako erronka berezia da sistema sendotu gisa egituratzea eta egokitu gisa egituratzea eta egungo garaietara egokitua, sektore publikotik kalitatezko kultur zerbitzuak eraginkortasunez eta jasangarritasunez administratzeko,

Plangintza arautu eta legitimatu batekin bat datozen emaitzak xede harturik.

Horretarako, esparru funtzional bat zehaztu behar da ikuspuntu sistemiko batetik (ikus 4. orrialdea) planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko, udalerriek eskaintzen duten zerbitzu publikoa udal alor guztien arteko mahai sektorial baten bidez. Horrenbestez, hura tokiko testuinguru bakoitzean ezartzea lagungarria izanen da haiek guztiek osatzen duten multzoaren eraginkortasunarentzat.


- ★ Kultura ondasuna da eta, Udalen bidez kudeatua, zerbitzu erabilgarria eta beharrezkoa da, eta zeharkakoa beste zerbitzu publiko askorekiko. Beraz, beharrezkoa da aitortzea kultur ondasun eta zerbitzu horien kudeaketak berekin duen berezitasuna.
- ★ Etorkizuneko tokiko kultur zerbitzu publikoa sustatuko badugu, sistema konplexua dela hartu behar da aintzat, eta honakoak ditu kide: langileak, politikariak, enpresak, herritarrak, artistak, kolektiboak, elkarte profesionalak eta amateurrak, instituzio eta erakunde publikoak eta pribatuak.
- ★ Udalerriek kultur zerbitzuak ematea jardueren programaziotik haratago doa: lurraldea egituratzen du, belaunaldien arteko topagune gisa dihardu, gizarte kohesioa sustatzen du, biztanleria atxikitze eta erakartzeko foku gisa dihardu, bazterketa arriskuan dauden kolektiboak ematen die arreta, lagungarria da aukera berdintasunerako eta gainerako zerbitzu publikoak hobetzen ditu.

Udal kultur zerbitzu baten eredu funtzional bat garatzeko proposamenen laburpen-taula.

(Sistema baten funtzionamendu baldintzak osatzen dituzten eremuen arabera eta disfuntzionaltasunen diagnostikoaren ondorioz, ekintza batzuk justifikatzen dira, eta ekintza horietatik berariazko proposamenak sortzen dira)

EKINTZA ESPARRUAK	EGUNGO DIAGNOSIA (Disfuntzionalitateak)	EREDU FUNTZIONALA	
		EKINTZAK / JUSTIFIKAZIOA	BERARIAZKO PROPOSAMENAK
PLANGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Tokiko kultur planik eza ⇒ Barne- eta kanpo-erresistentziak ⇒ Beste udal-eremu batzuekin bat ez etortzea 	<p>Epe laburrerako eta luzerako helburuak planifikatzea, bai eta modu koherente eta antolatuan erabil daitezkeen estrategiak eta baliabideak ere.</p> <p>Erabaki eta kudeaketa esparruak bereiztea, kultur zerbitzuen emankizunean esparru funtzionala ezartzen laguntzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udaleko kultur plan bateratu bat egitea, zerbitzu guztiekin koordinatua. ▪ Mahai sektorial bat osatzea. ▪ Baliabideen eskuragarritasuna ziurtatzea. ▪ NKPEn planteatutako koordinazio foroa sustatzea.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Definitu gabeko objektuak ⇒ Helburu okerrak ⇒ Helburu kontrajarriak 	<p>Plangintzaren baitan, helburuak partekatu eta komunikatu egin behar dira, helburuekin engaiatuak dauden eragile guztien babes sendoa eta aldeko jarrera bermatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Helburu neurgarriak eta ebaluagarriak prestatzea. ▪ Helburu horiek Udalekoekin lotzea. ▪ Adierazle objektiboak sortzea. ▪ Jarraipenaren ardura izanen duten pertsonak izendatzea.
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Baliabide defizita ⇒ Sistema agortua ⇒ Giza baliabide desorekatuak 	<p>Udal kultur zerbitzuen giza baliabideak udal zerbitzu guztien ahalegin kolektibo batean integratzen dira, baina berariazko antolamendu bat behar dute, haien berezitasuna aitortzeko.</p> <p>Zerbitzu publikoaren funtzionaltasuna ekipamenduen erabilera optimizatzean datza, kultur programekin osatuz..</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbitzuak koordinatzea baliabideak optimizatzeko ▪ Kulturari buruzko prestakuntzak kultur alorreko beste zerbitzu eta maila batzuetarako . ▪ Lanbide kategoriak harmonizatzea (FEAGC, 2019). ▪ Kultur alorreko mailetako lan baldintzen berezitasunak arautzea. ▪ Ekipamenduen eta jaialdien mapa egitea, elkarren arteko mendekotasuna dutela agerian uzteko. ▪ Ekipamenduen eta programen koordinazio eta osagarritasun eraginkorra bultzatzea.
ATZERA-ELIKADURA	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Entropia gutxi ⇒ Hondatzea eta prestigio galtzeak ⇒ Huts egindako ikaskuntzak 	<p>Tartean dauden eragile sektorialeak eta administratuek/erabiltzaileak parte hartzeko bideak ezartzea.</p> <p>Ebaluazioa eta kontuak ematea, bai lanean aritzean, bai amaitzean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarrak plangintza- eta partaidetza-prozesuetan sartzeta. ▪ Komunitateak eta fidelizazio programak sortzea. ▪ Sektoreen arteko eta administrazioen arteko programazio partekatuko batzordeak

Kultur zerbitzu baten eskema orokorra Toki Administrazioan, sistema baten gisa pentsatua.



Tokiko/Udaleko kultur zerbitzu bateko baliabideen osaeraren xehetasuna.

TOKI/UDAL KULTUR ZERBITZU BATEKO BALIABIDEEN OSAERA XEHATUA

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Udal aurrekontuak Sarrerren salmenta Laguntza publikoak (dirulaguntzak) Elkarlan programak Babesletzak Mezenasgoak Kanpo programak

GIZA BALIABIDEAK

Kulturako goi teknikaria Kultur teknikaria Kulturako teknikari laguntzailea Kultur laguntzailea Ekipamenduetako teknikariak Ekipamenduetako laguntzaileak (kargak/deskargak) Atezaina Garbiketa zerbitzuak... Zerbitzuak kanpora ateratzea

BALIABIDE MATERIALAK Ekipamenduak Ondasunak Hornidura teknikoak Altzariak

BESTE UDAL ZERBITZU BATZUK Juridikoak, administratiboak, idazkaritza, kontu-hartzailtza, kontularitza, zerbitzu anitzak, udaltzaingoa, komunikazio teknikaria, itzulpena, herritarrek parte hartzeko teknikaria, etab.

COMPOSICIÓN DETALLADA DE LOS RECURSOS DE UN SERVICIO LOCAL /MUNICIPAL DE CULTURA

